269. zk.
Bigarren aroa
Urtarrilak 15
2016

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Elkarrizketa
Ola Sagardotegiko Iñaki Bengoetxea
3. orrialdea

Gaztea
Jonathan Mesonero bio-linistari elkarrizketa
13. orrialdean

Auzoan errotuta, baina mugarik gabe

4 Berri laburrak
5 Erreportajea Mendibileko zinemak itxi dituzte.
6 Erreportajea SHUa gaixotasun ultra arraroa du Jara Tomék.
7 Inkesta Zer espero duzu 2016 urterako?
8 Kirolak Julen Aginagalderi elkarrizketa.
10 Elkarrizketa Jon Olaizolari elkarrizketa.
11 Haurren Leihoa Txingudi LH 4D.
12 Gazteen Lanak Dunboa
14 Gazte infor
15 Agenda

ola
SAGARDOTEGIA
Iñaki Bengoetxea

TXOTX BERRIA
IREKIERA FESTA
Urtarrilak 17, igandea
14:00etan
ZATOZ !

Argazki lehiaketa

Aurten ere argazki lehiaketa martxan jarri nahi dugu. Bidaltzen dizkiguzuen argazkien artean, bat aukeratu eta argitaratuko dugu, zenbaki bakoitzean.

Edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen amaieran, argitaratutako argazki guztien artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Irun atzo Irun gaur

Gernikako arbola parkea

IUA: 56267

2003an Gernikako arbolaren adaxkak zeukan itxura.

1979ko irailaren 6ko Osoko Bilkuran Gernikako arbola izena jarri zioten parkeari. J.L. Ociok eta A. Aranburuk proposatu zuten. Parkea Iparralde hiribidea jaitsita, errepidearen eskuinaldean kokatuta dago.

Arbola zaharrak euskal herriarentzat duen esanahiari buruzko edozein iruzkin soberan dago. Tradizioaren arabera, Gernika sortu baino lehen ere haritz mardul baten itzalean biltzen ziren, toki horretan, Bizkaiko Jaurerriko Batzarrak.

Arbola euskaldunen askatasunaren sinboloa da. Haritza, historian zehar landatzen joan diren muskilek ordezkatu izan dute, beraz, jarraipena ziurtatuta dago. Azkenekoa, 1979ko otsailaren 2an landatu zuten, etorkizunean egungoa ordezkatzeko.

Irungo Udalak, beste udal batzuek bezala, 1981eko martxoaren 27an Bizkaiko Foru Aldundiari 5 muskil eskatu zizkion, parke horretan landatzeko. Espainiako azken gerra zibilaren 50. urteurrenaren oroigarri, parkearen erdian burdinezko eskultura bat jarri zuten 1987an. Gernikako arbola sinbolizatzen du, eta Xabier Laka andoaindarrak egina da.

Izen hori eman baino lehen, 1937ko maiatzaren 26an, Osoko Bilkurak erabaki zuen General Mola Plaza izena jartzea. Karrera militarra Marokon egin zuen Molak, eta 1930ean Segurtasun Zuzendari Orokor izatera pasa zen. Kargu horretan zela, errepublikar gehienen gorrotoa irabazi zuen. Prozesatu ondoren, armadatik bota zuten.

1936ko altxamendu militarrean parte hartu zuen. Irailaren 5ean Irun hartu ondoren, Donostiarantz abiatu zen.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

“Egin dezagun sagardo terapia”

IÑAKI BENGOETXEA

Itxita egon da Ola sagardotegia, abenduan eta urtarrilaren hasieran. Sagardoari azken ukituak eman ondoren, oporrak hartu dituzte Iñaki Bengoetxeak eta Joxepi Arruti emazteak. “Indarberritu egin gara, eta gogoz gaude denboraldiari heltzeko”, adierazi du sagardogileak. Urtarrilaren 17ko eguerdian irekiko dute txotx denboraldia Irungo Ola sagardotegian.

Zer prestatu duzue irekitzerako?

Urtero antzekoa izaten da. Lagunak gonbidatzen ditugu, txalaparta, trikiti eta pandero doinuak izaten dira, eta bertsoak ere bai.

Norbait omentzen duzue urtero. Nork izango du aurten lehen tragoa egiteko aukera?

Irunen ospetsua izan den trikiti eta pandero bikotea omenduko dugu, Euskal Herriko txapeldunorde izandakoa: Joseba Zabalo eta Patxi Aiorga. Asteburu askotan sagardotegia animatzen ibili izan dira, eta aurten haiek izango dira sagardoa dastatzen lehenak.

Ez ohiko eguraldia izan dugu 2015aren bigarren erdian. Zer moduz joan da sagardoa egiteko prozesua?

Sagar ona etorri da, baina nahi baino beranduago. Txotx denboraldirako berde samar iritsi da. Aurten, nik uste, udaran izango dugula sagardorik onena. Sagar asko izan dugu, hori bai. Etxean bakarrik 160 tona bildu ditut, eta beste sagardotegietara bidali behar izan dut, soberan nuelako.

Nolako sagardoa dastatuko dugu orain?

Sagardo bizia, fina eta gazi samarra. Uda aldera etorriko diren sagardoek fruta zapore handiagoa izango dute. Nik uste jendeari hori gustatzen zaiola.

Berrikuntzarik aurkeztuko al duzu aurten?

Sagar muztioa egongo da gaztetxoentzat, azken urteotan bezala. Gainera, upel berezi bat egin dut, bi sagar motarekin: %80 errezila, eta %20 mozoloa. Lehengo urtean mozoloa eta patzuloa nahastu nituen, %50 bakoitzetik. Oso ona atera zen. Aurtengoa gaziagoa izango da. Edonola ere, gustatzen zait kupel desberdina egitea, monobarietala edo bibarietala, jendeak ikus dezan zer ematen duen sagar bakoitzak.

“Etxean 160 tona bildu ditut”

Zergatik animatuko zenuke jendea asteburutik aurrera Ola sagardotegira hurbiltzera?

Etor daitezela aurtengo sagardo uzta dastatzera, eta batez ere ondo pasatzera. Eguneroko gatazkak eta arazoak ahaztera, jendearekin hitz egitera, eta txantxetan ibiltzera. Upel ondoan bertsoa botatzea, kantatzea, edo dantzatzea aproposa da horretarako. Egin dezagun sagardo terapia.

“Zaletasuna belaunaldi batetik bestera ondo transmititzen ari gara”

Hamasei urte daramatza jada Ola sagardotegiak martxan. Nabaritu al duzue belaunaldi aldaketarik bezeroen artean?

Ederra da ikustea nola txikitan gurasoekin etorritakoak orain lagunekin etortzen diren, bikotearekin, edo baita seme-alabekin ere. Zaletasuna belaunaldi batetik bestera ondo transmititzen ari garen seinale da hori.

Jende gaztea asteburuetan etortzen da. Familiak eguerdietan, eta koadrilak gauetan, parranda giro handiagoa egoten baita. Adin kontua da, normala iruditzen zait. Astean zehar, sagardotegira joateko ohitura handia duen jendea etortzen da. Lasaiago ibiltzen dira, kontzientzia handiagoarekin dastatzen dute sagardoa, kritikak egiten dituzte, etab.

Ondo hartzen al dituzu kritikak?

Eskertzen ditut. Jendeak batetik edo bestetik berdin edatea ez da aberasgarria. Hamargarren tragotik aurrera agian bai. Baina hasieran jendeak tentuz dastatzea ondo iruditzen zait. Kontzientzia gero eta handiagoa da, eta nabari da orain jendeak edalontzia hartzen duela, koloreari begiratzen diola, usaindu egiten duela etab. Jakina kritikak ondo hartzen ditudala, jendearen iritzia interesgarria da eta. Hobetzeko formulak topatzeko modua da.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Patinatze pistaren itxierarekin amaitu da Gabonetako kanpaina

Balorazio baikorra egin du Irungo Udalak

Zabaltza plazako patinatze pista izan da Gabonetako kanpainaren erdigune Irunen. Abenduaren 12tik urtarrilaren 10era egon da zabalik. Urtarrilaren 11n desmuntatu dute, kanpainari amaiera emanez. Guztira, 9.643 erabiltzaile izan ditu pistak, joan den urtean baino ia 9.000 gutxiago, 18.500 izan baitziren orduan. Hala ere, Irungo Udalak azpimarratu nahi izan du 2014/2015eko Gabonetan zortzi egun gehiagoz egon zela zabalik. Patinatze pistaren inguruan, bestelako jarduera paraleloak ere egin dituzte. Haurrentzako tailerrak, globoen banaketak edo ipuin kontalarien saioak eskaini dituzte. Gainera, inguruko taldeen musika emanaldiak egon dira Zabaltza plazan. Hamabi kontzertu baino gehiago izan dira, estilo ezberdinetakoak.

15.381 bisitari izan ditu Ficobako Eguberrietako Haur Parkeak

Ficoba Erakustazokako Eguberrietako Haur Parkeak bisitariak erakartzeko ahalmenari eutsi dio. 15.381 lagun hurbildu dira parkera, abenduaren 15etik urtarrilaren 4ra. Urtarrilaren 3an, igandearekin, 2.000 bisitari izan ziren, eta “sarrerarik ez dago” kartela jarri behar izan zuten, parkearen historian lehen aldiz. Bisitarien %40 Behe Bidasoa eskualdekoa izan da. Donostialdetik, bisitarien %22 hurbildu da, eta %11 Oarsoaldetik. Iparraldeko bisitarien kopurua %50 emendatu da.

Arkeologia ikastaroa eskainiko du Oiasso Museoak

Historiaurreko Iberiar penintsula aztertuko dute

2016ko ikastaroen eta jardueren egitarauari ekin dio Oiasso Erromatar Museoak. Otsailetik aurrera, “Iberiar penintsularen Historiaurrea eta arkeologia” ikastaroa eskainiko du. Kobre Arotik Erromatar garaiaren amaierara arte Iberiar penintsulan bizi izan ziren kulturak aztertzea izango du helburu. Adin guztietako parte hartzaileei zuzendutako ekimena da, modu atseginean eta didaktikoan landuko baitute gaia.

Ordubeteko klaseak izango dira, irudiz hornituak. Penintsulako Historiaurreko aztarnategi nagusiak eta objektu arkeologikoak identifikatuko dituzte. Aurreko beste ikastaro baten jarraipena izango da. Historiaurre zaharrena aztertu zuten orduan. Hala ere, lehen ikastaroan parte hartu izan gabe ere, bigarrenean izena eman daiteke.

60 euroren truke egin daiteke matrikula, 943.63.93.53 telefono zenbakian, actividades.oiasso@irun.org helbide elektronikoan, edo museoan bertan. Ikastaroko saioak astearteetan izango dira, 18:00etatik 19:00etara, otsailaren 9tik maiatzaren 10era.

26.000 bisitari hartu ditu museoak 2015ean

Oiasso Museoko erakusketek eta jarduerek 26.000 bisitari erakarri dituzte 2015 urtean. Museoko arduradunek ondorengo ekimenak azpimarratu dituzte: Dies Oiassonis historia birsortzeko jaialdia, harekin lotutako Erromatar Azoka, eta Bidasoko Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa. Jarduera bereziei dagokienez, “Apain-mahaiko istorioak” erakusketa nabarmendu dute. Bisitarien kopuruan, sare sozialen erabilerak eragina izan duela ere azpimarratu dute museoko arduradunek.

Aurten, bere lehen hamarkada beteko du Oiasso Erromatar Museoak. 2006ko uztailean zabaldu zituen ateak, beraz, hamar urte beteko ditu. Denbora horretan, antzinako Oiasso erromatar hiriko aztarnak bisitariei erakusteaz gainera, gaiarekin lotutako ekimen ugari hartu eta antolatu ditu.

Zinema aretorik gabe gelditu da Irungo hirigunea

Mendibil Merkataritza Guneko zinemak itxi dituzte

CineBox enpresa hartzekodunen konkurtsoan sartu zenetik, kolokan egon da Mendibil Merkataritza Guneko zinema aretoen etorkizuna. Ateak isten azkenak izan dira enpresako zinemen artean. Hala ere, abenduaren 27an kaleratze gutunak jaso dituzte langileek, eta amore eman behar izan dute. Urtarrilaren 13ra arteko epea eman du enpresak aretoak desegin aurretik. Baina ez da eroslerik agertu. Ezustekorik ez bada, behintzat, amaitu da Mendibileko zinemen ibilbidea.

Sektoreko talde indartsuenetakoa izan zen CineBox, estatu mailan. 180 zinema areto zituen 2013ko ekainean, hartzekodunen konkurtsoan sartu zenean. Enpresa likidatzeko eskaera egin zuen orduan, ikusleen kopuruaren beherakadak eraginda. Jaitsiera horren arrazoi nagusiak agerikoak dira: interneten eta pirateriaren eragina, sarreren prezioaren gorakada, %21eko BEZa eta aisialdirako bestelako aukerak.

Aurrerantzean, CineBox aretoetako ateak itxiz joan ziren, bananbanan. Denetan azkenak, Mendibil Merkataritza Gunekoak izan dira. Abenduaren 27an hartu zituzten azken proiekzioak. Egun horretan bertan jaso zituzten langileek kaleratze gutunak. Zinemaren ateak itxi behar izatea “zartadakoa” izan dela onartu du Isabel Corral langileen ordezkari sindikalak. Gogorrak izan dira azken hilabeteak CineBox Mendibileko langileentzat. Hala ere, etorkizun iluna zuten arren, lanpostuari eusteko ahaleginak egin dituztela adierazi du Corralek: “Ez da gugatik bakarrik izan, Irun hiriarengatik baizik. Irunek zinema behar du. Lotsagarria da Donostia kultur hiriburu den urte honetan Gipuzkoako bigarren hiri handienak zinemarik ez edukitzea”.

Zinema aretoen bizitza luzatzeko saiakera egin dute langileek

Hartzekodunen konkurtsoan egonik, CineBox enpresak Mendibileko bi areto besterik ez zituen digitalizatu, film berriak eman ahal izateko. Besteetan, zineklub modukoa antolatu zuten langileek. Beste zinemetako karteleretan ordurako ez zeuden pelikulak proiektatzen hasi ziren, sarreren salneurria murriztuta. Film horien kartelak langileek beraiek egin behar izaten zituzten, eta ezin zuten internet bidezko sarreren salmenta eskaini. Hala ere, ikusleen erantzuna positiboa izan zen.

Egoera prekario horretan ere, aretoek ikusleak erakartzen jarraitu zuten. “Mendibilekoa negozio errentagarria da. Aretoen errendimendua ez da izan arazoa”, azpimarratu du Isabel Corralek. 2015eko uztailan, beste enpresa batek aretoak erosiko zituela baieztatu zieten langileei. Notarioaren aurrean sinatzea besterik ez omen zen falta. Azkenean negoziazioek ez zuten arrakastarik izan, eta azaroaren amaieran jakinarazi zieten abenduaren 30ean aretoak itxi beharko zituztela. Langileek ez zuten amore eman. Bezeroen babesa jasotzeko mobilizatu ziren, eta 5.000 sinadura baino gehiago jaso zituzten. Irtenbideak topatzeko beste moduak ere bilatu dituztela baieztatu du Corralek: “Guk ahalegin guztiak egin ditugu. Merkataritza gentroko gerentziarekin hitz egin dugu, alkatearekin, lokalaren jabeekin...”.

Azken egunotan harremanak izan dira Ábaco-Cinebox taldeko konkurtso administratzaileen, Irungo Udalaren, Mendibil Merkataritza Guneko gerentziaren eta zenbait enpresaren artean. Albisterik ez da izan, ordea. La Caixa banketxea da lokalaren jabea, eta 700.000 euro eskatzen ditu. CineBoxek lokalak desegin aurretik eroslerik agertu ez bada, are zailagoa izango da operazioa hemendik aurrera.

Ezezagunari aurre egitearen erronka

SHUa gaixotasun ultra arraroa du Jara Tomé irundarrak

Irundar gehienek entzun dute, dagoeneko, San Migel auzoko neska batek SHUa (Sindrome Hemolitiko Uremiko Atipikoa) gaixotasun ultra arraroa duela. Diagnostikoa jaso zutenetik, informatzeko eta ikerketarako dirua biltzeko ahaleginetan aritu dira Maite Serrano eta Xabi Tomé, Jara Toméren gurasoak. Erakunde eta elkarte publiko-pribatuen eta norbanakoen babesa jaso dute. Azken ekimena, C.D.Behobiak antolatutako IV. areto futbol txapelketa izan da. Gabonetan egin dute Artaleku eta Azken Portu kiroldegietan, eta bildutako dirua Jara Toméren familiari eman diote.

2010eko Gabonetan izan zituen lehen sintomak Jara Tomék. Goitika egiten hasi zen, baina ura besterik ez zuen botatzen. Bidasoa Ospitaletik Donostiara bidali zuten, giltzurrunetako gutxiegitasuna zuela iritzita. Zainketa Intentsiboko Unitatean egon zen, eta hobera egiten ez zuela ikusita, Gurutzetako Ospitalera bideratu zuten. Gema Ariceta SHUan aditua den sendagileak artatu zuen bertan. Gaixotasun ultra arraro hura izan zezakeela susmatuta, probak Madrilera bidali zituen, han azter zitzaten. Hamar egunen buruan heldu ziren emaitzak, eta albistea konfirmatu zuten. “Une gogorra izan zen”, gogoratu du Xabi Tomé aitak: “Jara neska osasuntsua zen, ez zuen sekula katarrorik edo griperik izaten. Halako batean, gaixotasun ultra arraro bat zuela esan ziguten. Kolpe handia izan zen”.

> “Jara neska osasuntsua zen, ez zuen sekula katarrorik edo griperik izaten”
> Xabi Tomé

Bi hilabete eman behar izan zituen Jara Tomék ospitalean. Zainketa Intentsiboetako Unitatean lehenengo, eta plantan ondoren. Alta jaso ondoren, bi astean behin Gurutzetara joaten ibili behar izan zuen neskak. Hasieran anbulantzia jartzen zioten, baina murrizketen ondorioz zerbitzua kendu zioten, eta gurasoek eraman behar izan zuten aurrerantzean. Gaur egun bi hilabetean behin joaten dira Gurutzetara. Jararen gaixotasuna kontrolatuta dago. Botikak hartzen ditu, eta zenbait gauza galarazita ditu. Igerilekuan bainatzea, adibidez. “Lehen igeriketa egiten zuen, eta medikuek pentsatu zuten, beharbada, igerilekuko bakterioren batek eraginda aktibatu zitzaiola gaixotasuna”, azaldu du Xabi Tomék. Gainerakoan, bizitza arrunta egiten du. Eskolara joaten da, eta lagunekin irteten da. Gorputzean ez zaio ezer antzematen. Hamabi urteko beste edozein neskaren itxura du. Hala ere, gaixotasuna edonoiz aktiba daiteke, arrazoi nabarmenik gabe. “Ziurgabetasunean” bizi direla onartu du aitak: “Erne egon behar izaten dugu beti. Sukarra baldin badu, Donostiako Ospitalera joaten gara zuzenean”.

SHUa kasu gutxi daude mundu mailan. Estatuan, 150-200 gaixo besterik ez daude, haurrak gehienak. Barne organoei eragiten die, giltzurrunei bereziki, baina baita gibelari, birikei, bihotzari edo burmuinari ere. Sistema immunologikoko proteina batzuk modu ezegokian aktibatzerakoan sortzen da sindromea. “Duela zenbait urte gaixotasuna zer zen ere ez zekiten. Horregatik, ezin zioten aurre egin, eta gaixoak hil egiten ziren”, azpimarratu du Xabi Tomék. Orain, egindako ikerketei esker, ezagutza handiagoa da. Medikuek badakite zer den, eta nola eta zein medikamenturekin kontrola daitekeen. Gaixotasuna aktibatzen denean, hainbat tratamendu ezberdin daude. Plasma transfusioak, dialisiak, transplanteak, eta berriena, Soliris izenekoa. Eculizumab antigorputza darama, eta SHUaren ondorioak leundu egiten ditu. Oso tratamendu garestia da, eta estatuko beste lurralde batzuetan ez bezala, EAEn Osakidetzak bere gain hartzen du haren kostua.

> “Hiritar arrunten ekarpena eskertu nahi nuke bereziki”
> Xabi Tomé

Ikerketa eta informazioa

Gaixotasuna behin betiko sendatuko duen tratamendurik, ordea, ez dute aurkitu, oraingoz. Ikerketak aurrera doaz, baina horiek ere, garestiak dira. Jara Toméren familia bere ekarpena egiten ari da. 35.000 euro inguru bildu ditu jada, ASHUA (Asociación Síndrome Hemolítico Urémico Atípico) elkartearentzat. Bizilagun askoren laguntza jaso dute: alarde tradizionaleko San Miguel konpainia, auzo elkartea, merkatariak, kirol elkarteak, Javier Delgado triatleta etab. “Hiritar arrunten ekarpena eskertu nahi nuke bereziki. Jendea oso solidarioa izan da”, adierazi du Xabi Tomék. Jasotako dirua ikerketara bideratu du ASHUA elkarteak. Badirudi, pixkanaka, fruitua biltzen ari direla. Ikertzaileekin izandako azken bileran jakinarazi zietenaren berri eman du Jararen aitak: “Konturatu dira pubertaroko aldaketa hormonalarekin, gaixotasuna ahuldu egiten dela, nesken kasuan, batez ere”.

Denborarekin, gaixotasunean aditu bilakatu dira ia Jara Toméren gurasoak. Espezialistekin, ikertzaileekin eta ASHUAko beste kideekin izandako harremanaren ondorio da hori. Elkarteetan parte hartzeko gomendioa luzatu die Xabi Tomék gaixotasun arraroak dituztenei eta haien senideei: “ASHUAk informazioa eta lasaitasuna eman digu. Gu ere prest gaude, edonork zalantzak baldin baditu, argitzen saiatzeko”. Dirua biltzeko egin dituzten ekimenek, hain zuzen, informazioa zabaltzeko ere balio izan dute. Gaixotasuna lehenbailehen antzemateak garrantzia handia du. Lehen 48 orduak funtsezkoak direla diote adituek. Zentzu horretan, informazioa ezinbestekoa da. “Jende askok informazio faltagatik ez du lehenago jakin SHUa gaixotasuna zuela”. Jara Toméri garaiz antzeman zioten gaixotasuna. Horri esker, gurasoen laguntzaz SHUari aurre egiteko indarra du.

Inkesta

Zer espero duzu 2016 urterako?

Rosa Mari Ramos

Gustatuko litzaidake aurten lan gehiago egotea, nire senarrarentzat eta nire semealabentzat. Ondo legoke nire alabari kontratu finkoa egingo baliote. Helduak jubalitzen direnean, ea enpresek gazteak kontratatzen dituzten... Nik enpresa batean egiten nuen lan, eta joan nintzenean ez zuten inor kontratatu. Lan egoeraz gainera, 2016 urterako, senideek osasuntsu jarrai dezaten espero dut.

Elena Zuazu

Espero dut hobera egitea. Egia esan, nagoen moduan ere ez nago gaizki, baina bueno, gutxienez 2015ean bezala mantendu nahi nuke.

Fisikoki ongi mantentzea eta soldata igoera bat lortzea dira urte berri honetarako jarri ditudan helburuak. Uste dut lortuko ditudala.

Estibaliz Zubialde

2016 urterako nire inguru-koak eta ni osasuntsu mantentzea espero dut. Bestalde, lanean nahiz bizitza pertsonalean zoriontsu izatea dut helburu, eta nola ez, munduan zehar bidaiatzen jarraitzea eta lagunekin parrandan ibiltzea.

Luis Amunarain

2016 urterako igual jarraitzea espero dut. Ez dut uste hobera joango garenik. Hemen inork ez du ezer egiten besteengatik, eta bide horretatik egoera zaila aurreikusten dut.

Arlo pertsonalean, 2016 urterako osasuna eskatzen dut. Nire adinarekin hori da gehienok nahi izaten duguna.

DOCTOR HOUSE
Etxekologo

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

“Oso sentsazio bereziak izan ditut”

JULEN AGINAGALDE, eskubaloi jokalaria

Bidasoaren harrobiak eman duen jokalari arrakastatsuena da Julen Aginagalde. Garaipen zerrenda ederra du irundarrak: Asobal Liga, Asobal Kopa, Errege Kopa, Poloniako Liga, Poloniako Kopa eta Munduko Eskubaloi Txapelketa, besteak beste. Munduko jokalari onenen podiumean egon da, eta piboteen artean, onena dela diote adituek. 2006an utzi zuen Bidasoa, duela ia hamar urte. Baina aurten, Artalekura bueltatzeko aukera izan du, Espainiako selekzioarekin Domingo Bárcenas Memorialean parte hartzeko. Torneoa irabazi dute, eta urtarrilaren 15etik aurrera, Europako Txapelketan ariko dira, Polonian. Garaipena lortzen baldin badute, Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetarako txartela eskuratuko du Aginagaldek.

Eskubaloiak eraman zintuen Irundik kanpo, eta aurten eskubaloiak ekarri zaitu etxera.

Bitxia izan da aurtengoa. Normalean, data hauetan, selekzioarekin kontzentratuta egoten naiz, baina Irundik urrun. Aurten Eguberriak beste modu batean bizi ahal izan ditut, aspaldian ez bezala.

Nolakoa izan da kontzentrazioa Irunen?

Oso berezia. Entrenamenduak Artalekuko pistan edo gimnasioan egin ditugu, eta Urdanibia hotelean hartu dugu ostatu. Senideak eta lagunak gertu izan ditut, eta oso polita izan da dena.

> “Guretzat, prestaketan aurrera egiteko partidak izan dira”

Zein balorazio egingo zenuke Domingo Bárcenas Memorialari buruz?

Guretzat garrantzitsuena Europako Txapelketa da. Erronka horri ekin aurretik, ona izan da Suediaren, Poloniaren eta Brasilen mailako taldeen kontra aritu ahal izatea. Guretzat prestaketan aurrera egiteko partidak izan dira. Uste dut, hala ere, ikusleek gozatu dutela.

Nolakoa izan da, zuretzat, berriro Artalekun jokatzea?

Polita. Bertan partida asko ikusi ditut, entrenatu eta jokatu ere egin dut Artalekun. Horregatik, oso sentsazio bereziak izan ditut. Gainera, Artaleku beteta ikusi dugu. Irungo eta Gipuzkoako zaleak han zeuden, eskubaloia ikusten. Agerian gelditu da zaletasun handia dagoela inguru honetan.

Europako Txapelketa duzue orain buruan. Domina helburu?

Domina, eta ahal dela, Rio 2016rako plaza olinpikoa. Besteen asmoa ere horixe izango da, eta gogorra izango da lehia.

Gainerakoan, zer moduz doakizu denboraldia Polonia aldean?

Ligan ondo ari gara, azken denboraldietan bezala. Sailkapeneko lehen tokian gaude. Txapeldunen Ligako multzoan bigarren postuan gaude, Bartzelonaren atzetik. Uste dut momentu onean gaudela, ea Europako Txapelketatik denak sasoian bueltatzen garen. Orain arte eramandako bideari eusten baldin badiogu, urrun helduko gara.

> “Agerian gelditu da zaletasun handia dagoela inguru honetan”

Hirugarren denboraldia duzu jada Kielcen. Gustura?

Oso gustura. Herrira eta taldera aspaldi egokitu nintzen. Egia da eskubaloi ezberdina topatu dudala. Asobal Ligan taktikoagoa da, Polonian, berriz, fisikoagoa. Baina azken finean, eskubaloia da, eta ondo moldatzen naiz.

Bost urteko kontratua sinatu zenuen. Betetzeko gogoz?

Gezurra dirudi, erdia egin dut jada, eta ziztu bizian pasa zait. Kontent nago, eta espero dut kontratua bete ahal izatea.

Auzoan errotuta, baina mugarik gabe

Edozein gazteri futbolean aritzeko aukera ematea da Landetxa K.T.aren helburua

Saskibaloi elkarte gisa sortu zen Landetxa Kirol Taldea 1982an. Futbol sekzioa beranduago eratu zuten, baina klubaren jarduera nagusi bilakatu zen laster. Saskibaloi taldeek Amigos del Baloncesto elkartearekin bat egin zuten. Landetxa K.E.ak gorabehera ugari bizi izan du aurrerantzean. Hala ere, denborarekin, egitura egonkortzea lortu du. Gaur egun, zazpi talde federatu eta futbol eskola ditu Landetxak.

Klubaren sorreran parte hartu zuen Jesus Corderok. Saskibaloi jokalari eta entrenatzaile izan zen 80ko hamarkadan. Amigos del Balonceston jarraitu zuen, eta zuzendaritzako kide izan zen. Horregatik, duela zortzi urte Landetxa K.T.aren zuzendaritzan aldaketa izan zenean, presidentearen deia jaso zuen. “Laguntza eskatu zidaten, kluben zuzendaritzan esperientzia nuelako. Baiezkoa eman nuen, momentu delikatua zelako, eta ezin genuelako elkartea hiltzen utzi”, azaldu du Corderok. Gaur egun, Agustin Eceiza da presidente, eta Cordero presidenteorde.

> “Guk ez diogu inori ezetz esaten”
> **Jesus Cordero, presidenteordea**

Futbol eskola berreskuratzea izan da azken zortzi urteotako lehentasunetako bat. Erronka handia izan dela azpimarratu du Jesus Corderok: “Diputazioaren aginduz, infantil mailatik beherako haurrek ezin dute kluben izenean lehiatu. Horregatik, zaila da haurrak erakartzea, ezin badute lehiaketa ofizialetan aritu”. Beste handicap bat ere badu Landetxak. Ugaldeko futbol zelaia Mariño K.E.arekin elkarbanatzen duela. Bi alde ditu gainera: entrenatzeko espazioari eta ordutegiei dagokiena, eta Mariñoren erakargarritasunarena. “Mariñok urteak daramatza lan ona egiten, eta egitura sendoa du. Horregatik, auzoko haur askok haien eskolara jotzen dute”, adierazi du Corderok.

> “Zuzendaritzako jendea eta entrenatzaile gehienak auzokoak dira”
> **Agustin Eceiza, presidentea**

Aterik itxi gabe

Zailtasunak zailtasun, 50 mutilez osatutako eskola du Landetxak. Talde federatuei dagokienez, infantil, kadete eta jubenil mailako bina talde, eta Lehenengo Erregionalekoa ditu Landetxak. Zazpi talde guztira. “Guk ez diogu inori ezetz esaten. Gobernuz Kanpoko Erakundea garela diote”, aipatu du, irribarrez, Jesus Corderok. Beste klubetan onartu ez dituzten gazteak hartu izan ditu urtetan Landetxak. Harro dago, hala ere, presidenteordea: “Gure helburua da gazteei kirola egiteko aukera ematea. Ez daitezela kalean egon, beste denbora pasa okerragoetan. Gurekin daudenean, behintzat, jarduera osasuntsua egiten ari dira, eta jarrera eta balore egokietan hezkuntza jasotzen dute”.

Denborarekin, Landetxako gazte batzuk onartu ez dituzten taldeak mendean hartzeko gai izaten dira. Lan gogorraren balioa agerian utziaz. “Gure gazteek hobetzeko tarte handia dute. Guk, haien hobekuntza ikusiz gozatzen dugu”, baieztatu du Corderok. Irun osoko eta inguruko gazteak hartzen ditu Landetxak, inolako arazorik gabe. Dena den, arduradunak pozik daude, auzokoak gero eta gehiago direlako. “Zuzendaritako jendea eta entrenatzaile gehienak auzokoak dira. Jokalariak, gero eta gehiago”, azpimarratu du Agustin Eceiza presidenteak. Auzoarekiko lotura harago doala erantsi du Jesus Corderok: “Landetxa Auzo Elkartearekin eta auzoko elkarte gastronomikoekin, adibidez, harreman handia dugu. Batera lan egiten dugu ekimen askotan. Auzoko eragile bat gehiago gara”. Landetxaren izena darama klubak, eta sustrai sakonak ditu auzoan.

Futbol zelaiaren arazoa

Landetxak eta Mariñok futbol zelai berbera elkarbanatzea zailtasuna da bi elkarteentzat. Dena den, egoera horrek konponbidea izango duela uste du Jesus Corderok: “Badirudi Mariñok bere futbol zelaia izango duela laster, San Miguel-Anakan. Kasu horretan, pentsatzen dugu auzoko haur asko Landetxan gelditu direla”. Nolanahi ere, Ugaldeko futbol zelaiak konponketak behar dituela azpimarratu dute Landetxako arduradunek. Erabileraren poderioz, belarra hondatuta dago, eta mina hartzeko arriskua dute gazteek. Gainera, harmailako teilatuak nahikoa estaltzen ez duela aipatu du Agustin Eceizak: “Euria egiten baldin badu, mundu guztia bustitzen da”.

“Jendearen lan baldintzak aldatzen ez badira, ez dakit nola emango diogun buelta egoerari”

JON OLAIZOLA (Olaizola inmobiliaria agentzia)

Hamarkadak daramatza Olaizola familiak higiezinen negozioan. Promotore ibili ondoren, 1994an Olaizola inmobiliaria agentzia ireki zuten. Merkatuak azken hogei urteotan bizi izan dituen gorabeherak zuzenean jasan dituzte. Gorka eta Xabier bikiek, eta Jon anaia zaharrenak hartzen dituzte bezeroak Beraketa kaleko lokalean. Azkenak erantzun du elkarrizketa.

Zer eskaintzen die higiezinen agentziak saltzaileari eta erosleari?

Alde batetik, segurtasuna eta profesionaltasuna. Pertsona baten inbertsio garrantzitsuena da etxea erostea. Kontu handiz ibili behar da. Arazoak sortzen badira, nori eskatu behar dizkiozu kontuak? Guk aseguru bat daukagu, Higiezinen Jabetzako Agenteen Elkargoko kideak garen aldetik. 600.00 euroko erantzukizun zibila daukagu, bezeroak babesa senti dezan. Gaur egun zaila da erosketa batean kale egitea. Baina, badaezpada, komeni da profesionalen laguntza jasotzea.

Nola adosten duzue etxebizitzen salneurria?

Etxebizitza bat ekartzen digutenean, hasieratik gure iritzia ematen dugu. Ikerketa bat eta balorazio bat egin, eta etxebizitza horren merkatuko prezioa zein den adierazten diogu jabeari. Normalean, ez da berak proposatzen duen prezioa izaten. Egia esan, ez da erosoa jabeari esatea bere etxebizitzaren prezioa X dela, berak erosi zuenekoa baino askoz baxuagoa baldin bada. Baina errealitatea hori da. Ez da normala pisu bat 400.000 eurotan jartzea salgai, eta azkenean 225.000 eurotan saltzea. Horregatik, pisu batzuk ez ditugu hartzen, jabeak ez duelako prezioa merkatuaren errealitatera egokitu nahi izaten.

Azken urteotako prezioen beheraldiak ba al du aurrekaririk?

Hainbesteko jaitsiera, eta batez ere, horren iraunkorra, ez da sekula gertatu. Izan ziren prezioen jaitsierak 70eko eta 80ko hamarkadetan, 90ekoaren hasieran ere bai. Baina oraingoa bezalakorik ez. %45-%50 jaitsi dira prezioak Gipuzkoan. Salneurri batzuk ez dira sekula errekuperatuko. 2003an Duplex atiko bat 300.000 eurotan saldu genuen. 2006an, prezioek gaina jo zutenean, erosleak 600.000 eurotan saldu zuen. Bikoiztu egin zuen prezioa. Gaur egun, 300.000 eurotan ezin da saldu etxebizitza hori.

Erokeriak egin izan dira. 2006-2007ko prezioak anti ekonomikoak ziren. Gogoratzen dut 2004an ikerketa bat egin genuela Higiezinen Jabetzako Agenteen Elkargoan, eta ondorioa izan zen ezinezkoa zela prezioak gehiago igotzea. Bestela, jendearen soldatak kontuan hartuta, familiek ezin izango zituztelako etxebizitzak sekula ordaindu.

Zein da merkatuaren egoera Irunen?

Irunen, 160.000 170.000 eurotan etxebizitza majoak dituzu, auzoaren arabera, beti ere. Gaur egun, harrigarriena da 85.000 euroko 90.000 euroko etxebizitzak badaudela. Duela hamar urte, ia garajeen prezioak ziren horiek.

Krisi ekonomikoaren ondorioek eragin al dute alokairuaren kulturan?

Halabeharrez, bai. Azken bost urteotan alokairuak gora egin du nabarmen. Gazteen soldatak, lan baldintzak eta lan prekarietatea kontuan hartuta, ulergarria da. Etxe bat erosteko pentsamendua ere erokeria da gazteentzat. Batzuentzat, alokairuan sartzea ere bai. Gainera, banketxeek ez dute krediturik ematen, edo baldintza gogorrak ezartzen dituzte. Beraz, alokairua da irtenbide bakarra. Beste kontu bat ere aldatzen ari da. Orain, saltzen ditugun etxebizitzetako asko, gero alokatzeko izaten dira. Inbertsioak, azken finean.

> “Hainbesteko jaitsiera, eta horren iraunkorra, ez da sekula gertatu”

Zer topatu daiteke Irunen, alokairuari dagokionez?

Momentu honetan, guk etxebizitza bakarra ere ez dugu alokairuan. Denak alokatu ditugu. 2015ean, astean alokairu bat itxi dugu, bataz beste. Ikaragarria izan da. Irunen, alokairuaren bataz besteko prezioa 600-650 eurotan dabil. Hortik gora oso etxebizitza onak dira, 700 edo 750 eurotan. Behera eginez gero, 500-550 eurokoak izaten dira minimoak.

> “Astean alokairu bat itxi dugu, bataz beste”

ASAP programan parte hartzen duzue. Zertan datza?

Eusko Jaurlaritzaren alokairu programa bat da. Parte hartzen duten etxebizitzek baldintza minimo batzuk bete behar dituzte. Hala baldin bada, jabeak gure esku uzten du. Guk dokumentazioa bete eta Eusko Jaurlaritzara bidaltzen dugu. Onartzen baldin badute, etxebizitza hori Etxebiden izena eman duen edonork aloka dezake. Gehieneko prezioa 550 eurokoa da. Eusko Jaurlaritzak jabearen esku bi aseguru jartzen ditu, berme gisa. Nik uste ideia oso ona dela, baina jende askok ez du haren berri.

Zein aurreikuspen egiten duzu 2016rako?

Galdera ikur handi bat jarriko nuke. Nahiago nuke aurreikuspen ona egin. Batzuetan esaten didate oso pesimista naizela, baina datuak hor daude, ez naiz ezer asmatzen ari. Egia da azken sei hilabeteak onak izan direla. Nik uste dut salneurriek hondoa jo dutela. Lurraren prezioa eta urbanizatzearena kontuan hartuta, ia ezinezkoa da gehiago jaistea. Hala ere, jendearen lan baldintzak aldatzen ez badira, ez dakit nola emango diogun buelta egoerari. Lotuta dago dena. Errekuperazio ekonomikoa benetakoa baldin bada, lan baldintzak hobetzen badira eta soldatek gora egiten badute, orduan bai, etor daiteke merkatuaren gorakada.

Txingudi LH 4D.



Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, ainordekotzak...

Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf. 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

Dunboa Ikastetxea. 4. maila DBH. Nerea Irigoyen

EUSKARAREN EGUNA BERTSOEKIN OSPATZEN

Denek dakizuen bezala, abenduaren 3an, Euskararen eguna izan eta ospatu zen Euskal Herriko leku guztietan. Irundik hainbat aktibitate egin ziren eta Irungo ikasle, irakasle eta pertsona askok "post-it" bana idatzi genuen Euskararen alde Irungo plaza batean. Irungo eskoletan zenbait ekintza egin ziren eguna ospatzeko. Gure eskolara, Dunboa BHI-ra, bi bertsolari etorri ziren, Alaia Martin eta Jon Maia.

Liburutegira joan ginen ikasle guztiok bi saiotan, lehenengo saioan, lehenengo eta bigarren mailakoak joan ziren eta bigarrenean, hirugarren eta laugarren mailakoak. Gure saioa haien aurkezpenekin hasi zen, gure irakasleak egina. Segidan, bertsoak botatzen hasi ziren Alaia eta Jon, gure irakasleak emandako gaiekin. Gai guztiei buruz abestu zuten (irakasleak, ikasketak, amodioa, etab.) eta gutaz hitz egin zuten bertso batzuetan (adibidez hango neska beltzarana esanez).

Oso dibertigarria eta entretenigarria iruditu zitzaidan saioa eta bertsoak egiteko zeukaten abiadurarekin eta erreztasunarekin harrituta geratu nintzen. Lehen hezkuntzako hirugarren mailan hasi ginen gu bertsolaritza egiten eta Alaia gure bertsolaritza irakaslea ez zen arren, gure eskolako beste klase batzuen irakaslea izan zen Dunboa LHIn. Betidanik bertsoak egin ditugu nire klasean eta Amaia Antzokian antzezten genituen kurtso bukaeran. Neri bertsolaritza asko gustatzen zitzaidanez, jangelan, bi egunetan, bi ordu bertsolaritza egiten nituen klaseko beste lagun batzuekin. Oso gogorapenak ditut bertsolaritzarekin, asko dibertitzen eta ikasten bainuen harekin.

Aurten eskolan egin den euskeraren egunik bikainena iruditu zait eta gainera euskera bultzatzeko ideia oso ona izan dela uste dut, asko ikasten baita

bertsoekin. Horrelako ekintza gehiago egitea ondo egongo litzateke, denon onerako izango bailiteke.

Bertso honekin
Iruzkin hau bukatu
Horrelako egunik
Beharko errepikatu
Denon artean
Euskera bultzatu!

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

J.B.P.B. 12 urteko haurrak kantatua (Irungo Kontrakale karrikakoa). Ibarlako Errotazarko Antoniori ikasi zion. (El Bidasoa, 1959-II-21)

Atzo fuanintzen ferira

Atzo fuanintzen ferira
erosi nuen txerri ttiki bat
txerri ttikiak «rrin-rrin-rrin»
gato ttikiak «miau-miau.miau»
zakur ttikiak «txau-txau-txau»
A ze gaba pasatu nuen nik!

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

JONATHAN MESONERO, biolinista

“Bihotzera zuzenean bidalitako mezua da musika”

Bosgarren aldiz elkartu da Taupadak Orkestra Sinfonikoa, urtarrilaren 9an Amaia Kultur Zentroan. Iker Sanchez zuzendari zela, kalitatezko musika emanaldia eskaini du 60 musikari profesionalek osatutako taldeak. Bildutako dirua, Taupadak Gobernuz Kanpoko Erakundeak Bolivian duen proiektu solidariora bideratu dute. Musikarien artean, Jonathan Mesonero biolinista irundarra aritu da. Pablo Sarasateren “Fantasía Carmen” obran bakarlari lana bete du. Biolinista gaztea Berlinen bizi da gaur egun, baina gustura hartzen ditu etxean jotzeko aukerak.

Zein sentsazio eragin dizu berriro Irunen aritzeak?
Ilusio handia, batez ere. Etxean jo ahal izatea paregabea da. Lagunen eta senideen txaloak jasotzea oso berezia da, hitzez azaltzen zaila. Batez ere, horrenbeste aldiz etxetik hain urrun jotzen ibili ondoren, ondokoen babesa sentitu ahal izan gabe. Europako beste lekuetan baino beroagoak dira txaloak hemen.

Eta Taupadak GKEren aldeko kontzertu solidario batean parte hartzeak?
Taupadak Gobernuz Kanpoko Erakundearen proiektua irundar moduan harro egoteko arrazoia da. Amaian eskaini dugun kontzertu honekin, Boliviako San Ignacio de Moxos herrian hezkuntza musikala eskaintzeko dirua bildu dugu.

Oso pozik nago antolatzaileak nirekin harremanetan jarri direlako aurten. Nire ekarpenari esker, haurrek musikan bizimodua topa dezaten espero dut. Zeharo aberasten gaituen hezkuntza ematen du musikak.

Irunen hasi zinen musikan. Nola gogoratzen dituzu zure lehen urratsak?
Jolas baten moduan gogoratzen ditut. Nire ustez, behintzat, hala behar dute izan. Nire gurasoek bidalita hasi nintzen musikan, oinarrizko ezagutza batzuk izan nitzan nahi zutelako. Baina inolako presiorik gabe. Horregatik, nik aukeratutako bidea egin ahal izan dut. Familiaren babesa jaso dut beti, eta hori eskertzekoa da. Garai ederra izan zen, ilusioz eta gogoz betea. Egunero ikasten nuen zer edo zer, eta horrek motibazio handia ematen zidan. Zoritxarrez, guraso askok sakrifikatzera behartzen dituzte haurrak, musika benetan gustuko ote duten jakin gabe. Akats larria da.

Zergatik aukeratu zenuen biolina jotzea?
Ez nuke jakingo esaten. Instrumentu ezberdinetako kontzertuetara joan nintzen, eta gehien gustatu zitzaidana biolina izan zen. Horrela erabaki nuen biolina nire bidelagun egitea. Egia esan, hobeto pentsatuta, banuen instrumentu errazagoren bat aukeratzea.

Nola erabaki zenuen musika izan nahi zenuela ogibide?
Ez zen sekula nire helburua izan. Egiten nuenarekin gozatzen nuen, eta ahalik eta gehien ikasten saiatzen nintzen, besterik gabe. Bide honetan jarraitzeko gaitasuna nuela esaten zidaten, baina eskolan ere ondo ibiltzen nintzen, eta irakasle batzuek ez zuten begi onez ikusten musika ogibide aukeratzearen ideia. Gaur egun, aldiz, oso harro nago egin nuen hautuaz.

Musikenen jarraitu zenuen ikasten. Nola baloratzen duzu, gaur egun, han jasotako formazioa?
Musikenen musikari egin nintzen. Askotan gertatzen zaigu ez dugula daukaguna baloratzen, galtzen dugun arte. Musikenerekin hori gertatu zait. Hezkuntzarik onena jaso nuen han, eta familia handia da, gainera, niretzat. Irakasle apartak ezagutu nituen, eta harreman ona dut oraindik horietako batzuekin. Musikenen hazi egin nintzen musikari dagokionez, baina baita arlo pertsonalean ere. Musikeneko irakasle batzuk Amaiako kontzertuan izan ziren nire emanaldia entzuten.

Berlinera joan zinen ondoren. Zeren bila?
Etxetik irten behar nuen, nire formazioa nazioarteko beste eragin batzuekin osatzeko, eta musikaren mundua modu zuzenago batean bizitzeko. Horretarako leku aproposa da Berlin. Hiriko txoko bakoitzean arnasten da kultura. Zaila izan da unibertsitatean onartua izatea, baina horri esker, irakasle onenekin lan egin ahal izan dut. Pozez zoratzen nago.

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua?
Oso aldakorra. Etxean nagoenean bizitza arrunta egiten dut. Ikasi, irakurri, kirol pixka bat egin... Baina oso ohikoa izaten da aireportuetan orduak ematea, asko bidaiatzen baitut. Ez naiz kexatuko, gustuko dut nire bizimodua.

Nolako bilakaera izan duzu biolinista moduan. Zertan aldatu zara?
Teknikoki hobetu dudanaz gainera, independenteagoa izaten ikasi dut. Nire buruarengan konfiantza asko izaten. Horri esker, borroka egiteko, erortzeko eta berriro altxatzeko indarra bildu dut. Bide horretan sakontzen jarraitu behar dut. Kontrako iritzi asko entzuten dira, beraz, zure buruarengan sinistea funtsezkoa da.

Nola aurkeztuko zenuke zure burua, gaur egun?
Pertsona inkonformista eta anbizioz beterikoa naizela esango nuke. Ez dut sekula atzera begiratzen, eta nahi dudanarengatik borrokatzen dut. Nire printzipioekiko fidela naiz.

Zein helburu duzu?
Betez ere zoriontsu izatea, eta ahal bada, nire kontzertuetara hurbiltzen den jendea ere zoriontsu egitea. Hori da musikarion funtzioa. Entzuleak harrapatzea eta gozatu araztea. Bihotzera zuzenean bidalitako mezua da musika. Hori da lortzen saiatu behar duguna.

Euskadiko Gazteak Lankidetzan 2016

Garapenerako ekintzak hegoaldeko herrialdeetan izango dira, Amerikan, Asian eta Afrikan hain zuzen ere. Hiru hilabeteko esperientzia izango da, uztailetik urrira.

Betebeharrak eta baldintzak?
1.- 2016ko urtarrilaren lehena baino lehenago, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza izatea.
2.- 1986 eta 1993 artean jaio izana, bi urte horiek barne.
3.- Jarduera egingo den herrialdean erabiltzen den nazioarteko hizkuntza menderatzea.

Izena ematea: otsailaren 22ra arte.

Informazio gehiago: www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-6525/eu/contenidos/informacion/jov_coop_1convocatoria/es_13754/convocatoria.htm

Eskiatzera goaz, ba al zatoz????

Zer? Larunbatero Irundik autobus bat aterako da Cauterets eta Gourettera eskiatzera joateko. Egun bateko forfaita eta garraioa prezioaren barnean daude.

Ordutegia?
Irteera: Irundik 6:45ean.
Itzulera Gourettetik: 16:30etan.
Itzulera Cauteretsetik: 17:00etan.

Noiz? Larunbatero.

Prezioa? 40 eurotik aurrera (eski estazioaren arabera).

Prezioa: 15 €.

Non? Kabigorrin (Peña kalea, 1 - Irun).

Informazio gehiago: Telefonoa: 943 635 333; web gunea: www.kabigorri.org.

Izen emateak: http://multimediaeducativa.net/2015/12/robotika-en-navidades-kabigorri

Auzolandegiak 2016 programaren kartela zuk egin dezakezu

Zer? 2016ko Auzolandegiak programako kartelak zuk egindako irudia izan dezake, eta trukean, aparteko bidaia irabaz dezakezu.

Zer bidali?
Irudia: Kartelaren irudia JPG formatuan, 72 p.p.p.-ko bereizmenarekin eta 70 X 50 zm-ko neurrian (bertikalean zein horizontalean) aurkeztu beharko da.
Leloa: Lelo bat proposatu behar duzu.

Lanak nora bidali: gazteaukera@gmail.com

Unibertsitate Orientaziorako Azokak 2016: Zure etorkizuna aukeratzeko behar duzun informazio guztia

Zer? 2015-2016 ikasturterako Unibertsitate Orientazio Azokak egiteko datak eta tokiak.

Non? Gipuzkoako kanpusean, Ignacio Barriola Zentroan(gelategia), Donostian.

Non? Urtarrilak 23.

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

EGA: 2016 deialdia, urtarrilaren 21era arte

Lehenengo deialdia:
Matrikulaldia: urtarrilaren 7tik 21era, biak barne.

Azterketa noiz:

- Atariko proba: otsailaren 20an.

- Proba idatzia: martxoaren 5ean.

- Ahozko proba: maiatzaren 20an eta 21ean eta maiatzaren 27an eta 28an.

*Matrikulazio-datuak aintzat hartuta, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak erabakiko du probak egun batean edo gehiagotan egitea.

Nola egin matrikula: INTERNET bidez, honako webgunean: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/euskar

Urtarrilak 16

Zer? Kike Suarez & La desbandada eta Turrones kontzertuan.

Non? Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoan. Sargia, 1, atzealdea.

Ordua? 23:00etan.

Prezioa? Doako sarrera.

Urtarrilak 16

Zer? Dani Mateok hamar urte daramatza eszenatokietan eta 70 minutuko monologo berezi bat prestatu du ospatzeko.

Non? Amaia KZn.

Ordua? 20:00etan.

Prezioa? 16 euro.

Sarrerak lortzeko? https://ticket.kutxabank.es/janto/main.php?idProvincia=20

Telefonoa? 943620621.

Abenduak 18

Zer? Liburu Forum bat antolatu dute CBA liburutegi berrian. Manan Benitezen eskutik izango da.

Non? San Juan plaza, 1.go solairua.

Ordua? 19:00etan.

Prezioa? Doako sarrera.

Urtarrilak 27

Zer? Argoiak elkarteak sukaldaritza tailerra antolatu du. Oraingo honetan Mikel Cuevas izango da klasea emango duen sukaldaria.

Non? Argoiak Elkarte Kulturalaren lokalean. Bertsolari Uztapide, 6.

Ordua? 17:00etan.

Prezioa? Doako Sarrera.

Urtarrilak 31

Zer? Pirritx, Porrotx eta Marimototsen antzerkia. Pailazoak baserrira doaz Marimototsengana. Marimo bertan dago, Ilargirekin ikasten, baserritarra izan nahi baitu. Gaur baserriko lanetan lagunduko diote denek Ilargiri, haurdun dago eta. Laster jaioko da umetxoa.

Non? Amaia KZn.

Ordua? 16:00etan.
Prezioa? 7,10 euro

Salmentak? Leihatilan, Luis Mariano Turismo bulegoan, eta https://ticket.kutxabank.es

BADATOZ INAUTERIAK!

Kaldereroren konpartsa

Noiz? Urtarrilak 30.

Ordua eta ibilbidea? 19:00etan Alberto Anguera plazatik aterako da KALDERREROEN KONPARTSA. Ibilbidea: Oiartzun, Hondarribia, Zubiaurre, Geltoki kaleak, Colon ibilbidea, Foru kalea, Kale Nagusia eta San Juan plaza.

Iñudeak eta artzainak

Noiz? Urtarrilak 31.

Ordua eta ibilbidea? 12:00etan aterako dira. Ibilbidea hurrengo izango da: Eskoleta karrika, Eliza kalea, San Juan plaza, Kale Nagusia, Foruen karrika, Colon ibilbidea, Zabaltza plaza (bertan dantza egingo dute Musikaren Udal Fundazioaren Bandaren laguntzarekin). Luis Mariano kalean amaituko dute.

EKAR teleinmobiliaria
Nafarroa ibilbidea, 7 – IRUN ☎ +34 943 628 333
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 60 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua, berokuntza elektrikoa, hegalderuntz, eguzkitsua.
Ref: 04397 93.000 €

Pisua salgai Hendaian
Azalera 55 m², 2 gela bikoitz, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, terraza, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegalderuntz, eguzkitsua eta bista zoragarria. Aparkalekua barne.
Ref: 03811 175.000 €

Pisua salgai Irun Azken-Portun
Azalera 82 m², 3 gela, bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, igogailua, trastelekua eta bista polikoa.
Ref: 04422 180.000 €

Pisua salgai Irun Alde zaharran
PRIMERAKO AUKERA!!
Azalera 35 m², gela 1, bainugela, komuna, egongela, sukaldea. Berrikuntza eta pisua erreformatuak.
Ref: 04389 70.000 €

Pisua salgai Irun Palmeran
Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua, berokuntza, eguzkitsua.
Ref: 04399 248.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 52 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea
4. pisua igogailurik gabe.
Ref: 04444 82.000 €

Pisua salgai Irun Artzes
Azalera 67 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea, balkoia, gas berokuntza, igogailua, eguzkitsua eta bista polikoa.
Ref: 04441 165.000 €

Pisua salgai Hondarribian
Azalera 46 m², 2 gela, bainugela 1, egongela eta sukaldea.
Ref: 04435 140.000 €

Etxea salgai Hendaian
Azalera 110 m², 3 gela, bainugela 1, komun 1, egongela, sukaldea, terraza, jardina, gas berokuntza eta eguzkitsua. Alde eder lasaia.
Ref: 04336 285.000 €

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

Marisa

BEHERAPENAK!

Luis Mariano, 18 - Irun
943628813